ANDRA ETA GIZON. GIZAKI BAKÀR, SEXU BIKOITZ

Andra eta gizon arteko arazoak oso garrantzitsu, hunkigarri eta eraginkorrak dira. Nire asmoa arazoaren erro beretik aztertzea da. Horregatik hasiko naiz giza naturaren ikuspegia ahalik eta bilduen adierazten, hasiera latz samarra emango badiot ere nire lanari.

I.- ANDRAZKOEN (ETA GIZONEZKOEN) GIZA IZAERA

1.- Gizaki (soinezko maitagogo) berdinak

Hau da nire ikuspegi oinarrizkoa, andrazko/gizonezkoen arazoa oinarriz argitzen duena: Gizakia soinezko maitagogoa da[1].

Giza izakia gizaki egiten duena maitamena da. Eta maitamenaren alderdiak hauek dira: ezagumena eta hautamena.

Maitamena da buru, eta bere potentziak esaneko, menpeko. Adimena, nahimena eta oroimena maitamenaren ahalmenak dira. Eta zentzumenak ere maitamenaren eskuko. Hautamena (sa-

[1] Nire "gizakia maitagogo da" liburuko azalpena.

rritan askatasun izenez aipatzen duguna), adimena, nahimena eta oroimena baino gorago oinarrituta dago gizakiaren izaeran.

Galdegile eta bilari bakarra maitagogoa da, gogoa da. Bere galdera edo bilaketari erantzuteko, adimena eta bere potentzia guztiak erabiltzen du. Zein/zer da gizakia? galdetzen dugunean, zein/zer da galdera horren galdegilea berbera argitzen dihardugu. Gure gogoaren gogozko erantzunari adimenezko eraketa ezarriko diogu. Den dena maitamenaren jarduera izango da, bere ahalmen guztiak ere bitartèkotzat erabiliz.

Soinezko maitagogo den gizakiak, ederra, egia eta ongia maite ditu. Eta ederrean ederren gizakia da. Egian egiagoen gizakia da. Eta onean onena gizakia da.

Gizakiak gizakia –norbera eta bestea– maite du, eta gizakiaren gogoko zaion oro maite du.

Animaliak, hain maitagarriak izanik ere, ez dute maitasun izpirik, ez ederraren, ez egiaren eta ez ongiaren maitasunik.

Beraz, gizakia gizaki egiten duena maitamena da, eta ez –argi eduki behar dugu– maitamenaren menpeko den adimena.

Zertan datza gizakiaren duintasuna?: gizakiaren duintasuna Maitari izatean datza.

2.- Soinezko maitagogo nortasun ezberdinekoak

Andrazkoak eta gizonezkoak berdin-berdin gara gizakiak. Berdin-berdin garelako maitariak. Eta ahalmen eta potentzia berdinak dauzkagulako. Gure arteko ezberdintasuna, maitatzeko ditugun joera edo bide desberdinetan azaltzen da. Eta nortasun/desberdintasun nagusia, nabaria, salbuespenak salbuespen, hau da:

Andrazkoak bizitzari begira, gizakia bera sentituz eta maitatuz ari dira. Gizonezkook gizakiaren bizitzeko beharrezkoen arduratan dihardugu gehienbat; jakin eta ekimen ororen alde; gizakiaren gogoko den ingurumariaz maitari ekinez. Beraz, no-

labait eta batez ere, andrek gizakiaren *bizitzaren* alde; gizonok gizakiaren *bizibideen* alde. Bizibideak bizitzarentzat dira, eta ez bizitza bizibideentzat. Gizonezkook ez dugu zertaz andrazkoak baino gehiago harrotu.

Bere nortasunaren joeraz gizakiaren alde lan eginez, orokorrean gizonak zeru lurrak aztertzen/argitzen ditu; eta etxeak jaso, legeak egin, bideak zuzendu, ur-bideak etxeratu edo herriratu eta abar. Andreak, aldiz, etxea egokitzen du bertan bizi direnentzat gogozkoago izan dadin; legeen barruan hurko gizakien alde jokatzen du eta, batez ere, gizaki berberaren aldeko arduran adimen eta potentzia guztiez dihardu beti. Aurpegira eta begietara begiratuz, gizakiaren sentimenduak/bizikizunak ezagutzen ditu eta maitearen barru barruari barru barruko erantzun egokia eman.

Senarraren, semearen, lagun hurkoaren giza-gogo sentipen-azalpenak oso ondo jasotzen ditu andrazkoak, adimena eta kontzeptuak erabili gabe, erabili aurretik. Senarra edo semea pozik dago, edo negarrez, edo zerbaiten faltan, zerbait galdetu edo esan nahian; eta bere hurko andreak horrek denak jasotzen ditu inongo kontzepturik gabe, bere gogoko (ez zentzumenen bakarrik) begiradarekin. Galdetzen badiozu zer gertatzen zaion bere hurko gizaki horri (senar, seme), orduan erabiliko ditu kontzeptuak (pozik, triste, eta abar) bere ezaguera zehatzak adierazteko; baina artean ez dauka bere gogoan hitz-kontzeptu bat erabili beharrik bere altzoko edo alboko gizakia uler/sentitzeko eta bere potentzia guztiak haren alde lanean ipintzeko. Maitari dihardu, giza jardun bete betean. Gu maitariagoak egiten gaituzte. Giza zeregin nagusienean ari dira.

Sentimenduak gogoaren beraren, adimen, nahimen eta gogoramenaren eta potentzia guztien zuztar, nagusi den gogoaren beraren barrengo jarioak/afekzioak dira. Gure andrak gizaki guztiongan ezagutzen eta samurtzen dituzten gogo-isuriak. Haurtzarotik hil arte gizakiaren gogoa eratzen duten bizikizunik garrantzitsuenak.

Gizonezkoek, gehienetan, ez diete behar besteko garrantzirik ematen gogo barrengo egoerei, sentimenduei[2].

Andrazkoek, aldiz, gizaki berari barrura begira maitari ari direnez, muinean sortzen zaizkion sentimenduak bizi-bizi bereganatzen ditu eta maitasunezko ekintza sakonez erantzuten, gorengo mailako maitajardunean.

Andrazkoak filosofiara eta zientzietara bideratzen dituenean bere ahalmenak, emaitzak ezin hobeak lortzen ditu. Baina andrazkoak ez baditu gizonezkoak baino gutxiagotan bere potentziak zientzia eta filosofiara bideratzen, bai lanarazten du bere adimena maitajardunean beti argiago eta kementsuago maitari jardun ahal izateko..

Lan batzuetarako andrazkoak bataz beste egokiagoak izan litezke, eta beste batzuentzako gizonezkoak, beti ere nahi besteko salbuespenekin.

3.- Zein gizakiago? Andrazkoa ala gizonezkoa?

Nor da, beraz, maitariago: gizakiarentzat zeru lurrak atontzen diharduenak; ala atondutako zeru-lurrak gizaki ororentzat (gizonezko ala andrazko izan) egokitzen ari dena etenik gabeko maitasunaz? Gizakia bera zuzenean maitatzen ari denak ala gizakiaren gogoko eta beharrezko direnak? Ez dago erantzuterik. Batek daki hori.

Ez dago esaterik, ezta ere, gizonezkoaren adimena bizkorragoa eta sakonagoa denik andrazkoarena baino, hauek ere edozein arlotan, saiatuz gero, emaitzak ezin hobeak lortzen dituztelako. Zeharo ziurra eta esan beharrekoa da, beraz, ezin dugula, inola, andrazkoak gizonezkoak baino beherago ezertan ipini. Zalantzetan hasiz gero zera erabaki beharko genuke: ia gizonezkoak baino andrazkoak maitari izatean gorago dauden ala ez

Gizakia 'animal rationale' dela esaten badugu, gizatasunaren neurria, nolabait, adimen edo arrazoimenean datza. Baina giza-

[2] Immanuel Kant aipagarri.

kia soinezko maitagogo dela esaten badugu, gizatasunaren neurria maitatzean dago. Galderaren gakoa, beraz, ez da zein den adimentsuago, zein den maitariago baino. Hau da gure azterketarako kriterio edo irizpide nagusia, benetan argigarria izango zaiguna. Arrazoimendunago izatea ez da gizakiago izatea. Maitariago izatea gizakiago izatea da; gizaki helduagoa, garatuagoa.

4.- Nortasun desberdina: elkarrentzat eta gizakiaren sorrerarentzat

Ezin dugu esan: "maitagogo berdinak gara baina soin desberdindunak". Zeharo oso osorik gizaki (soinezko maitagogo) berdinak, zeharo oso osorik nortasun desberdinekoak.

Andrazkoen eta gizonezkoen izate berdinean dagoen nortasun desberdintasuna bi alderditara zabaltzen da: batetik, andra-gizonezkoen harreman guztietara; eta bestetik, gizaki berriaren sorrerara.

Andra-gizonezkoen nortasunak zelan egiten gaituen elkarren zorionezko osagarri jakina baino jakinagoa da denontzat. Esatera nindoan ez dagoela esan beharrik zer moduzko aberastasuna, poza, osatzea dakarkigun gizaki guztion bizitzara andrazkoen eta gizonezkoen nortasuna desberdina izateak. Baina esan beharra badago, bai. Gertatzen zaiguna/zaidana zera da: ni behintzat ez naizela gauza hori azaltzeko. Nire bizitzan, nire gogo muinean, zein goxotasun, poz eta gida izan diren nire ama, nire arrebak, andrazkorik gehienak eta, batez ere, nire emaztea, ez daukat adierazterik.

5.- Filosofariak eta andrazkoa: Kant eta Nietzsche

Aurrera jo baino lehen, argigarria izango da andrazkoen jarrera argitzea gure ustez filosofari eta zientzialari handi garela uste dugun gizonezkoen aurrean.

Has gaitezen filosofiaren sailean. Orain arte esandakoen ondorioz, gizakiari buruz (gizaki denez) zerbait aurkitzen, aur-

kezten, esaten dugun bakoitzean, gogoan eduki behar dugu berdin berdin balio behar duela gizonezkoarentzat edo andrazkoarentzat. Esan dugunez, epaia gorabehera honetan datza: gizakiaren adimena ote den arazo nagusia, ala adimendun ere den gizakia bera den arazoa. Adimena maitamenaren agindura (zuzen), ala maitamena adimenaren esanera ipintzen dugun (oker). Adibidez, irizpide/epaibide honek bi filosofari oso ezagun baztertzen ditu –beste askoren artean– maila handi baten: Kant eta Nietzsche.

Kantek, dakigunez, errukia eta sentimenduak baztertu egiten ditu gizakiaren eginkizunen gidaritzatik. Adimena (*Vernunft*) da dena, baita ere maitamenaren gidari. Ondorioz, maitatzea (eta sentimenduak areago) adimenaren esaneko izan behar du, azpikoa.

Horrela, bere "Zer da argiketa?" (*Was ist Aufklärung?*) saioan hau dino:

> "Argiketa (ilustratzea) zera da: gizakia bere kabuzko helgabetasunetik irtetea. Eta helgabetasuna hau da: beste bateren baten laguntzarik gabe norberaren adimena erabili ezina." Eta
>
> "gizakien zatirik askoz handienari (**andrazkoak denak barru**: '*darunter das ganze sch^ne Geschlecht*') arriskutsua egiten zaiela ***"helgabetasunetik"*** irtetea, beren adimenaz aritzea."

Baina esaera hori faltsua da. Edozein andrazko gauza da, edozein gizonezko beste, bere adimena bere gogoz erabiltzeko bere maitajardunean. Egiaren, ederraren, ongiaren maitari, andrazkoak adimena zorrotz eta bizi darabil. Egian egiazkoen, ederrean ederren, onean onena den hurko gizakiaren maitajardunean eta bere gogoko arazoetan, andrazkoak sakontasun argiz erabiltzen du bere adimena.

KANT arrazoizale huts ageri da, eta ez maitari maitale. Beretzat adimena da gizakiagan nagusi. Adimenaren erabilerak

egiten du gizakia gizakiago. Beraz, kale egin zuen andrak (eta gizakiak) epaitzean, andren (eta gizaki ororen) gogo autonomia ulertezinean, maitamenak egiten duen adimenaren erabili sakona eta bizia saihestean.

NIETZSCHEK, berriz, andrei buruzko jardunetan aurkezten dituen irain eta mesprezuen florilegioa, ez aipatzea hobe.

Kantek eta Nietzschek, biok eta euren jarraitzaileek, kale egiten dute beren filosofiaren oinarri oinarrian, ez dutelako gizakia zer den asmatzen/ulertzen, eta ondorio okerrez (gizakia orokorrean adimen hutsaren erabileraz neurtuz) andrazkoa ez dutelako gizonezkoa beste gizakitzat aurkezten.

6.- Zientzia: andrazkoa (gizakia) zientzialarien babesa

Beharrezkoa da baita ere, hasieran bertan, zientziagintzan ekiteko andrazkoen artean nabari izan ohi den joera urriaren konplexua uxatzea.

Beti gogoan edukitzekoa da zientziagintzaren bihotza eta arnasa egia maitatzea dela, egiaren ezagutari, bilari, jardutea. Eta ez dugu merezi duten beste esker emango zientzialariei, eman izan diguten eta ematen jarraitzen diguten hainbat maitasunezko erosotasunen gaitik. Emaitzen adibide bat: betaurrekorik gabe ezingo nuke lerro hauek idatzi eta beharrezko izan zaizkidan horrenbeste gauza irakurrita eduki. Ekonomiazko gaietan saiatu izan naiz neu ere arazoak aztertzen eta sakontzen; esperientziaz dakit zelako erakargarria eta altua den egia berrien bila aritzea.

Baina, bestetik, gizakiaren maitari izatea ez dago zientziaren azterketen eremuan eta menpean. Kausalitate printzipioaren zeharo gainetik aparte dagoena -egiaren eta erruaren artean benetan hautari diharduen izakia: gizakia hain zuzen– ezin delako zientziaren aztergaien sailean sartu.

Alderantziz, zientzialarien zientzia gizakiaren izanaren menpean dago. Zientzialariak ezin baitu zientziaz behaketa bakar

baten balioa erakutsi, ezin duelako gizakiak behaketarako zeharo beharrezko duen ikusmena badaukala erakutsi/frogatu *zientziaz*. Dudatan bazaude, saia zaitez zeu hori zientziaz -benetan zientziazko baliabide guziez– demostratzen.

Zientzian edo zientziaren inguruan uste hau dirudi gailendu dela: gizakia zer den, zientziak erakutsi eta frogatzen duela, ez omen dago-eta ezer ziurrik zientziak behaketez aurkitzen duena baizik. Baina egia nabarria zeharo bestelakoa da: zientzialariaren eta zientziaren oinarri bakarra, ziurtasunaren harroin bakarra, gizakiak gizaki denez –ez zientzialari denez– eskaintzen diona dela. Babes hori gizakiak zientzialariari esaten dion egia oinarrizko hau da: *'nik ikusi egiten dut'*.

Gizakiak zientzialariari *"nik..."*

Eta zientzialariak gizakiari, *"sinisten dizut...!*.

Ados ez dagoenak adieraz dezala ikusmenaren –behaketaren– balio zientifikoaren froga zientifikoa.

Zientzialariak dagian zientziaren objektibotasuna gizaki izatearen subjektibotasunean oinarrituta dago. Behaketa zientifikoaren objektibotasuna, giza subjektibotasunak babesten du. Horregatik esan dezakegu: *zientzialariaren* esanak ez du balio objektiborik, baina *gizaki zientzialariak* esanak balio objektiboa du.

Zu zara, andra –gizaki zarenez– zientziaren oinarria, eta ez zientzia zure izanaren erakustokia. Zientzia ez da beragan autonomoa. *Gizaki* zientzialaria bai da autonomoa, baina zientzialari denez gizakiagan sinistuz, lehenbizi gizaki denez jasotzen duena onartuz. Hau da, gizaki eta zientzialari gisa batera jardunez.

Filosofariak eta zientzialariak onuragarriak eta txalogarriak dira gizaki guztientzat, inongo dudarik gabe. Baina bere adimenezko ekintzaz gizakia gizaki denez ere menpean hartzen dutenean, gizakiaren eta gizartearen etsai harroputz bihurtzen dira noiznahi. Determinista huts. Zientziaren (egiaren) ukatzaile. Hortik dator, neurri handi baten, gizonezkoengan azaltzen

den gaitz bat: zenbat eta adimendunago hainbat eta harroago izatea. Aldiz, andrengan maitariago eta hainbat egiazaleago. Beraz, andra, ez izan filosofarien eta zientzialarien esanen arduratan. Izan esker oneko eta adierazi zuen mirespena, eskaintzen dizkiguten aurrerapenak beste inoren alde baino gehiago andren mesedetan baitira. Jardun askotarako lehenago beharrezko ziren indarra eta beldurrik eza gainditzen eta ezabatzen ari baitira, andrentzat gero eta lanbide eta ekinbide gehiago egoki eginez. Baina ez makurtu burua guk gizonezkoek askotan darabilgun harropuzkeriaren aurrean.

II.- ANDRAZKOEN (ETA GIZONEZKOEN) NORTASUN JARDUERA.

7.- Haur berria bizitzara deitzea, bion ekintza bildu bakarra

Gorago esan dugu gure andrazko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak bi alderdi dauzkala: elkarrentzat osagarri izatea, eta bizitza berria sortzeko ahalmen bildua edukitzea.

Gogo muinetik hasi eta gorputz atal bakoitzeraino; haurtzaroko aita-amaren bizikizunetatik zahartzaroko bion xamurtasunera heldu arte andrazko eta gizonezkoon elkar osatzea zer den, zelan esan?

Bigarren puntura etorriz, bizitza berria sortzeko ahalmena gizon eta andrazko, soinezko maitagogo bion dohain bildua, banan ezina da. Harreman sexualak nortasun desberdineko *soinezko maitagogoen* arteko harremanak dira. Ez *soinezko* nortasun desberdinekoen artekoak, *soinezko maitagogo* desberdinen artekoak baizik. Hau da, sexu elkarketan gizaki bakoitzaren gogoa ere bete betean ari dela soinezko jardunean ere. Gordinago esanik, narru jotzen egitean andrazkoaren eta gizonezkoaren gogo/gorputz desberdinak oso osorik eta bete

betean ari direla jokoan. Biak direla guraso izateko jardunean, biak erantzule bat-batean.

Aita eta ama ez gara soinez bakarrik, soinezko maitagogoz osorik baizik. Eta haur berriari bizitzarako dei pozgarria gizon eta emakumeok elkartuz egiten dugunez, egiten dugunean; biok gara berdin-berdin erantzule, betirako/azkeneraino, geuk biok elkarrekin eginari/deiari. Ondorio guztien elkar erantzule, biok. Andreak berak ere ez du benetako gizatasun ahalmenik gizonezkoari esateko: *"Zurekin atsegin une hau bizitzea nahi dut, baina ondorengoa ez da zure ardura"*. Hori esatea gizonezkoen matxismoa indartzea izango litzateke. Bion ekintzaren ondorio guztia bion ardura bat bera da. Gizonak zuk besteko giza erantzukizuna dauka, andra, hasieratik azkeneraino, giza erantzukizun hori nortasun desberdinean izan arren.

8.- Ate bakarra gizakia bizitzara sartzeko eta argitara irteteko, andreagan

Gizonezkoen eta andrazkoen nortasun desberdina eta gizaki berriaren sorrera aipatuz gero, berehala datozkigu gogora gizonezkoen eta andrazkoen harreman sexualak. Poz handi eta poz sakon eragile diren harreman sexualak.

Larru jotzen egitea haurgintzan egitea dela ulertu eta onartu behar dugu. Guk euskaldunok, betidanik, zigotoa sortu dela jakinez gero, andra hori haurdun dagoela esan dugu, arrazoi osoz. Haurdun dagoela, gizakidun dagoela. Hala esan, hala izan. Hor dago arazo honen gakoa: gizakiek gizagintzan ari direla. Sexu elkarketan aritzea -narru jotzen egitea-, bi gizakik oraindik ez den gizakiari bizitzara etor dadila hots egin eta erakartzea dela[3].

Andra eta gizonen nortasun desberdinaren ezaugarri oso garrantzitsua azaltzen da hemen: gizakia bai bizitzara sar dadin eta bai argitara atera dadin, andreagan dagoela atea. Haurdun

[3] Nire "Ekonomia eta..." liburuan jorratu nuen astiroago arazo hau.

gelditzea eta erdituz haurra argitaratzea, andreagan dagoela. Egia xume, ezagun, eztabaida ezin hau, oso garrantzitsua da gure elkarrenganako jokaeren gizatasuna argitzeko.

Hasteko, haurraren sorrerarako, andreak eta gizonak erdibana osatzen dute lehen bizitzako giza zelula, zigotoa. Baina zigotoa eta bere ondorena andrearen sabelean kokatu behar da gizaki berria gara dadin. Eta hitz gordinez esateko: zigotoa sor ez dadin edo andrearen sabelean koka ez dadin preserbatiboa edo pilularen bat erabiltzea, zera da: andrearen gorputzean tapoi bat ipintzea. Adibidez, mutilaren zakila puntaren bitartez ala neskaren atzamar lodiaren bitartez gizonak ala andrak kondoi/hesia ezarri; era batera edo bestera egin, hori besterik ez dira: andrearen gorputzean tapoia ipintzea espermatozoidea sar ez dadin, zigotoa sor ez dadin.

Eta zigotoa bere lekuan kokatuz gero egingo diren ekintza guztiak, sortu berri den haurra zaintzea ala andrearen gorputzetik botatzea dira. Beti andreagan eginak.

Gizonak larru jotzen egitea unetxo baten egiten den gauza erraz, arrunt, garrantzirik gabeko jarduna dela deritzo sarriegi; baina andrazkoentzat ekintza berehalako ondorio garrantzitsuz betea izan daiteke edo da. Zientziak berak ere, gaur egun, aukera asko ematen dizkigu naturari laguntzeko. Baina giza bizitzaren sorrerari eta bistara irteteari buruz, zientziak andrazkoaren ordezkoa egiten du beti, ez gizonezkoaren ordezkoa. Andrearen haurgintza aldian gizonak ez baitu beste ezer egiten/egingo haurra jaio dadin ala ez dadin, hasieran bere zigoto osagai erdia emandakoaren aparte. Ondorengo oso osoa, andrearen baitan datza.

9.- Kastiatea. Sida

Narru jotzen egin ala ez, arazorik sakonetan sokonenari buruzko erabakia da: andra eta gizona elkartzearekin batera haur berri baten bizitzari buruzkoa delako.

Haur berri bati deika jardun baina bizitzan sartzeko ateak aurrez itxita edukiz, gezurretan aritzea da. Ekintza horrek epaigaiaren osagai biak dauzka gorenak. Batetik giza bizitzari buruzko gaia dela. Gairik altuena. Eta bestetik sarrera ateak itxiz gero hots egitea denez, erabakirik okerrenaz egina dela: gezurretan, iruzurrez.

Ateak itxi nahiaren motiboak asko izan daitezke, itxuraz. Egoerarik askoz zailena hau da: senar-emazte gazte maiteminduak beren ohiko gelan sartu, eta benetako arrazoiak direla-eta, sexu abstinentzia elkarrekin erabakitzea. Eta beharrezkoa da horrela jokatzea maitari izateari uko ez egitekotan, ez baita zuzen ibiltzea -behin eta berriz esango dugu- bizitzaren ateak berariaz itxiz gero leihotik bizitzara deitzen jardutea sexu atseginen truke. Ateak zabalik elkartzea, elkarri eskaintza zeharo pozgarria egitea da.

Arazoa, gizakiaren duintasunarena da. Maitariarena. Orokorrean, bizitza guztian eta gizarte osoan maitari den gizakiarena. Ongi etorri gizatiarrak diren jakituria eta jolas guztiak andra eta gizonaren sexu elkarketaren unera, baina ate zabalik egitekotan.

Beraz, SIDA aipatzeak ez du, sakon sakonean, usteko zentzurik. Alderdi kolaterala da. Garai baten gehiegizko jaiotza-tasa izan zen erabilia argudiotzat jaiotzen kontrola predikatzeko. Orain SIDA da argumentua preserbatiboa erabiltzeko. Baina ezkontide gazteei abstinentzia predikatzen jardun; baina gaixo hori daukanari, aldiz, 'egin kontuz' esan, ez da koherentea, inola. Kondoia goretsi sidaren aurka oihu eginez gezurretan aritzea da. Gezurra, beti, gezurra da. Eta hau gezur oso astuna da.

Bestalde, sida gaixotasun bat da. Eta gaixotasunak ezabatzeko zientzialarien lana behar dugu. Kondoiari buruzko ekintzetan uxatzen diren ahalbideak arloko zientziagintzara bideratuko balira, aurrerapen handiak lortzeko bidean ibiliko ginateke.

Ezin diogu atal honi amaiera eman galdera hau egin gabe: ***"Egizu, Baina Kontuz"*** esateak, ez ote dauka askoz indar/era-

gin handiagoa ***'EGIZU'*** hitzean, ***'KONTUZ'*** hitzean baino? ***"EGIZU, BAINA KONTUZ"*** leloak ez ote du gehiago Sida zabaldu egiten, murriztu baino?

Gizakiaren sorrerari gezurrik gabe, egiaz eta joko garbiz erantzun gabe, bizitzari eustearen ondorengo den joera nagusiari ere iruzur egin baino lehen ezetz esaten jakin gabe; elkar benetan maitatzen ez aritzea da, gizaki duintasunaren beharrezko onespena baztertzea, gizatasunari neurri handi baten uko egitea. Ez dugu nahi, inola, edozein moduko eginagatik gizaki bakar bat ere akusatzerik. Baina jardun zuzena zein den, hori inongo beldurrik gabe adierazten saiatuko gara.

10.- Matxismoaren kontra eta aldeko adibideak: *Suediako legedia," The Economist", Eusko-Jaurlaritza,*

Narru jotzean sexuen arteko desoreka oso handia da, esan dugunez. Andrea bere diru beharrak eraginda edo bere gizonezkoa erakarri beharrak bultza eginda, une baterako norbaiti bere gorputza saltzean, bien arteko joko zeharo desorekatua sortzen da, esaten ari garenez. Desoreka horri erantzun egokirik ez ematean biek –andra eta gizona– eror daitezke matxismo ilunera.

Suediako Legedia.

Ez dut uste beste inon onartu denik Suediak prostituzioari eman dion tratamenduaren parekoa. Zerbitzu sexualak eskatzen dituzten bezeroak (gizonezkoak) zigortu egiten omen dituzte, baina ez zerbitzu horiek eskaintzen dituzten andrazkoak. Zerbitzu erosleak legez kanpo ipini dituzte, baina zerbitzu emaileei legezko laguntzak eskaintzen dizkiete. Eta tratamendu hori ekintzez garrantzitsua baldin bada, are gehiago kontzeptuz. Prostituzioa ez dutelako lantzat onartzen, eta bestelako benetako lanbideei ekiteko bideak errazten dizkietelako prostituta izandakoei.

Prostituzioaren –edo antzeko jarduneko– zerbitzu-ekintzan datzan kontzeptuzko tratuaren matxismo muina honela adieraz daiteke (eta beti gogoan eduki)

a) Andrazkoak bere gorputza alokatzen dio gizonezkoari, horrenbeste denboran berarekin disfruta dezan. Eta gorputza eskaintzean andrazkoak bere ahalmenak –adimena eta abar– eta bere gogoa ere ipintzen du zerbitzuan.

b) Narru jotzen egitea haurgintzan egitea da; gizakigintzan egitea da. Beraz, tratua egitean gizonezkoak –erosleak– hau esaten dio andrazkoari –zerbitzu saltzaileari-: "horrenbesteko denboran utzi behar didazu zure sabelean haur eginean jardutea".

c) "Haurrik sortzea nahi ez baduzu, zeu arduratu, andra".

d) "Haurra sorbidean jarriko bada, hor konpon zu, andrazko, zure ardura, zama eta atsekabeekin".

e) "Ama izateko gogorik ez baduzu, hor konpon zu nolabaiteko abortu egin ala ez erabakitzean".

e) "Eta baldin haurra garatuko balitz zure sabelean eta erdituko bazina, ni bere aita izan arren ez dut haur horri buruz ezer jakin nahi, ezta badela entzuterik ere."

Sexu librea gizonezkoen hedonismo beltza da, eginaren eta ondorioen ardura eta erantzukizunik gabeko ekintza matxista delako. Hitza ematerik nahi ez, beti hitza ematetik eta emandako hitzetik libre jardun nahi izatea da. Baina benetako giza bizitza ezin da joan atsegin hutsek gidatuta, gizakiak atsegin pozgarrien gidaritzan ere atsegin hutsen oso goragotik nagusi jardunez baizik.

Beraz, Suediako legedia garbi eta sakon ari da matxismoaren aurka, prostituta errukarri eta maitagarrien alde eginez eta gizonezko arduragabeen aurka.

"The Economist"

Hona hemen aldizkari honek zelan adierazten duen prostituzio ekintza: "Bi nagusi gela baten sartzen dira, prezioa ados-

tu eta sexu elkarketan egiten dute" (*"Two adults enter a room, agree a price, and have sex."*) Eta gero: "Liberalak (aldizkari honek horrela), helduek ados jarriz gero pribatuan egiten dutena euren negozioa dela-eta, gaitzetsi egiten dute (prostituzioaren abolizionisten) jokabidea. (*"Abolitionists make three arguments. From the right comes the argument that the sex trade is plain wrong, and that by condoming it, society demeans itself. Liberals (such as this newspaper) who believe that what consenting adults do in private is their own business reject this line."*) "The Economist September 4th 2004).

The Economist aldizkariak hor egiten duen prostituzioaren onespena, Suediako legediaren zeharo aurkakoa da eta faltsua, baita ere ekonomiatik begiratuta. Ez baitu argitzen/aipatzen tratu orori hasiera ematen dion puntu nagusia, ekonomiarik elementalenean ere jakina dena: *produktua* (objektua edo zerbitzua). Tratua beti *zerbait* eska/eskainiz hasten baita. Suediako legedia aipatzean aurkeztu dugu prostituzio tratuaren benetako produktua. Aldizkari honetan beste hauek bakarrik azaltzen dira: 1) nortzuk egiten duten; 2) non; 3) prezioa; eta 4) tratua betetzea.

Tratuko osagai nagusia –merkantzia– jan eginez gero, bere ondorengo gogoetak baliorik gabeak, zeharo hutsalak eta gizakiaren mesprezuzko bihurtzen dira. Penagarria aldizkari horren jokabidea prostituzioa epaitzean, matxismo itsuaren irudi. Suediako legediaren antipodetan kokatzen da. "*The Economist*"-ek esanek ez dute '*liberal*' hitza merezi, '*marketist*' gaitzizena baizik. Ez baitago 'liberal' izaterik', giza-liberala izan ezik.

Eusko Jaurlaritza

Gordeta daukat gaur ere erabilgarri diren bi kondoi, Eusko Jaurlaritzak orain hiru bat urte bi aldizkariri itsatsita opari eman zizkidanak, 'NO PASARAN' lelopean. Honela zioen testuan, erdaraz eta euskaraz: "... El preservativo es fuente de vida..." "... Preserbatiboa bizi-iturria da..."

'Bizi iturri', 'Fuente de vida'.

Gure autoetan darabilgun segurtasun uhala ez du inork, inoiz, 'Bizi iturri'eta 'Fuente de vida' izendatu. Segurtasun uhala bizitzarentzat kaltegarri edo galgarri diren arriskuetan gizakia gordetzeko dago ipinia ohi den lekuan; baina ez badio inongo bizitzari inolako aterik ixten ere, inork inoiz ez du esan segurtasun uhala 'bizi iturri dela'. Kondoiak, aldiz, saihets dezake gizakia gaixoren baten kaltetik. Baina beti bizitza berriaren sorbidea zeharo eragozteko asmatua eta ipinia da. Beraz, segurtasun uhalari ez deitzea inoiz inola 'Bizi iturri', 'Fuente de vida', gezurra litzatekeelako, baina bai kondoiari, iruzur matxista handi handia oihukatzea dela erakusten du argi eta garbi.

Oraindik ez dut jakin Eusko Jaurlaritzak barkamena eskatu dietenik Euskal Herriko andra guztiei, hitzez, egitez eta opariz horrelako propaganda matxista gezurtia egin izanagatik.

11.- Naturaren eskakizunak.

Hemen lantzen ari garen saiakera, natura beraren ezagueratik sortua da, giza behaketetan oinarritua. Bere bizitzari gizaki orok eman beharreko erantzuna bere giza nortasunaren araberakoa izan behar dela. Hori da naturaren arabera azaltzen den eginbide/norma nagusia.

Sexu elkarketan azaltzen da garbien naturak ezarri digun andraren eta gizonaren nortasun desberdintasuna. Banan-banan hartuz, maitasunez elkartzean ere aurrera begira elkarrekin jardun ezik, ez dago inolako berdintasunik bakoitzaren nortasunean, desoreka argia baino. Hasieratik ondorengo guztietaraino. Horregatik, zigotoa sorraraztean biak bat eginda jardun behar duten bezala obulua eta espermatozoidea batera daitezen; zigotoaren giza garapenak –eta gero haurrarenak– nortasun desberdineko andra eta gizona gizaki bat eginda bizi daitezela eskatzen du, elkarri bakoitzak bere nortasun bereziko giza maitasuna eta lana eskainiz. Bestela, nolabaiteko prostituziora erortzen gara.

Andrazkoaren erabaki nagusia maitagogo garatzea da, bere andrazko nortasunean. Eta gizonaren jardun nagusia, bere gizonezko nortasun bereizian garatzea da. Andra, batez ere bere lagun hurkoen gogo egonaldi barrukoiak diren beharrei eta sentimenduei hitzez eta eginez erantzuten. Gizona, aldiz, ingurumaria jakituriaz eta kemenez ezagutu, menderatu eta egokitzen gizaki guztion onerako. Giza jardun guztien azken benetako xedea, bai andrazko eta bai gizonezkoena, gizakia da; andrazkoek zuzenean maita izaten duten hurbileko laguna.

Gizonezkoek bi sexuon berdintasuna onestea eta aldarrikatzea, andrei iruzur lotsagarria egiten saiatzea da. Ez bazaio gizona andra kideari egindakoaren edo egitera doazenaren erantzule, arduradun, betiko onesle lotua eskaintzen, matxismoa praktikatzen ari da. Eta andrazkoak feminismoaren izenean sexu berdintasuna eskatzean/onestean, matxismo bihurria goresten/aldarrikatzen ari da, oker handiagoa egiten. Desberdintasuna eskatu behar dute andra diren gizakiek. Gizaki direnez eskubide berdinak. Baina andrazko direnez gizonei eginkizun bereziak ezarri. Andren aldeko legeak sustatze/lana batez ere gizonekoei ezarri behar zaie eginkizun, oraingoz behintzat.

Okerrago oraindik andrek abortu eskubidea eskatzea –haur sortu berriaren hilketa-. Andrazkoak gizon-kidea zeharo baztertzea da bidean den haurraren sortzailea aita izatera heldu ez heldu erabakitik. Beraz, gizonaren erantzukizuna ezetsiz, gizonezkoaren ardurarik eza sustatzea da. Matxismoaren alde joko bizia egitea da, gizonezkoei sexu elkarketarako ardura izpitik libratzea.

Beraz, naturak zera eskatzen du, orokorrean eta elkarri inola aukerarik kendu gabe: gizonezkoak lan egin dezala gogozko eta beharrezko guztiak etxeratzen, eta andreak etxeratu guztiak etxeko eta hurko lagunen gogozko eta onerako egokitzen. Andrea bere joerari jarraituz lagunik hurkoenak maitatzen ari denean/ari denez, gizonaren lorpenen eta irabazien

partaide izan behar du erdi-banakoan, aldi eta une guztietan. Zein batak lortu, zein besteak, den dena –soldatak, sariak– bienak, andrearen eta gizonarenak izan behar dute. Eta bien arteko lotura hori bere eginkizun egin beharko luke batez ere gizarteak, gizonak andrearen aldeko eginkizunen ardura gizarte osoarena eginez.

Gizakiarena da –andra eta gizonarena– betirako erabakiak hautatzea. Eginkizuna ez da, inola, debeku zerrendaren bat onartzea, giza gogoarentzat bizibide iraunkor pozgarriak hautatzea baizik. 'Haize aldakor' izatea ez da gizakiarena. Hainbat arlotan onartzen ditugu betiko erabakigile diren baietzak: ikasketan, lanbidean, politikan eta abar. Gizon eta emakumeen arteko erlazio iraunkorrei buruzko harremanetan ere betirako hautaketak onartu beharra daukagu.

Elkarketarik ez haurgintza ukatuz. Haurgintzarik ez elkarren benetako maitasun iraunkorrik gabe.

12.- Ekintza eta erakunde feministen behar bizia.

Benetan andren alde eta matxismoaren kontra ariko diren erakunde feministak oso beharrezkoak dira.

Ez da erraza esaten nola banatu gizartean gure zereginak. Baina argi dago, niretzat, nolabait asmatu eta ezartzen lagundu behar digutela andrazkoek euren lan bereizia eginaz gizonezkoek eginei ordaintzen diegun soldaten, sarien, irabazien erdibanako partaide izatera iristea.

Lehenbizi, andrazkoek eurok auto-estima gehiago behar dute, pozik eta harro maitatzea beren andra nortasun gizatiarra.

Andrek, nire iritziz, utzi egin behar diote andrazkoen eskubideak gizonen aurrean horrela horrenbeste aldarrikatzeari; eta askoz gehiago jardun gizonezkoen eginkizunak argitzen, eta egitera behartzen. Ez beti eskale, beti pasibo. Konponbideen zain ez, jardunbide osagarriak gizartean ezartzen baizik.

Horretarako baliteke egin behar nagusia hau izatea: andrazko jaioei ume umetatik hasita, bere neska nortasunaren ezagupena, onespena eta poza bereganatzen laguntzea.

Andrengan datzan gizonezkoa erakartzeko senak zera dakar berarekin: gizonezkoek andrazkoez gehiago arduratzea nahi izatea. Eta eskatzea.

Zer jango batez ere basoan edo ibai-itsaso uretan aurkitu behar zen antzinako garaietan, indar gutxiagoko eta beldurti diren andrek ez zuten halako ekintza arriskutsuetan parte hartzerik. Hortik dator gizon indartsu eta ausarten harrokeria. Baina gizakiok natura menperatzen goazenez gero eta tresna hobeak asmatuz lan guztiak errazago egin ahal izateko, indarraren eta ausardiaren beharra gutxituz doa eta andren eragina eta eginbeharra zabalduz. Hori berri oso ona da. Nik uste zenbat eta andrak alor gehiagotara zabaldu, hainbat eta maitekorragoa izango direla gure harremanak.

Gizarte osoa, gu denok, batez ere gure haurrak eta neskatila-mutikoak andrazkoen xamurtasunaren eta goxotasunaren faltan daude. Hazkuntzarik garrantzitsuena ez da adimenaren, nahimenaren, oroimenaren heziketa; horien buru, zuztar, jaun den gogoarena baizik. Ahalmen horiek euren eduki guztiez hautari, ezagutari, bilari erabiliko dituen gogoarena baizik. Eta gogoaren hezitzaile nagusia, jaio baino aurretik ere, haurraren hurko maitaria da, andrazko maitaria, ama izan edo amama edo besteren bat. Sentsibilitate harrigarri aberasdun andrak, hizkeran ere horrenbeste mailaketa eta ñabardura fin azaltzen dituztenak.

Gizaki izanean berdinak garenez, bakoitzak bere nortasunaren arabera jardunez gero, bizi baliabide berdinak jaso beharko luke. Etxean egoki lanean diharduen emazteak bere senarrak besteko diru sariak jaso beharko lituzke; hau da, bere senarraren lansariaren erdia emazteak irabazia dela zeharo onartua egon beharko litzateke gizartean. Adibidez, senarra alargun geratu ala emaztea alargun geratu, familiarentzat ondorio berdinekoa izan beharko litzake.

Honekin ekonomian sartzen gara. Arazoa ez da enpresen zeregina, gizarte osoarena baizik. Zerbaitek solidaritatea eskatzen badu, etxean lan bikainetan bikaina egiten duten andren aldekoa behar du izan. Adibidez andra alargunen bizibideak gu denon, gizarte osoaren arazo maitagarria dira. Andrentzat batez ere, segurtasun soziala solidaritate soziala izan behar da, horrenbeste urbuztanetik askatua.

Badute feministek zer landu gure gizartearen ikuspegi eta eginkizunetan. Jokabide hauen printzipioa berriz ere aipatuko dugu. Gizaki berdinak garenez, bakoitzak bere nortasun osagarri eta pozgarriaren arabera jardunez jaso behar du sari/laguntza/ospe berdina. Nortasun/sexu berdintasuna ez; giza berdintasuna bai. Nortasun/sexu berdintasunaren eskaerak andren zapalketara garamatza. Andren nortasun berezia da jaso beharra daukaguna.

13.- Feminismoaren goraipamena. Andrak gizartearen etorkizuna.

Ezin dugu ezkutatu andrazkoen artean dauden pertsonalitate desberdinak. Batez ere, gaitzen gaitza, gorrotoa, andrengan ere azaltzen dela. Baina gure harremanetan andrengan dagoen xamurtasuna eta biolentzia fisikoaren gaitzespena esperantzazko argi bizia dira.

Feminismoaren gorakadak hobetuko egingo du gizartea, barren barrenetik. Gure gizarteak andra maitariak behar ditu, andren aldeko langile feminista asko eta sutsu, guk gizonezkook indartsu eta adimentsu izatearen harrokeria gainditua izango den arte. Feministen gorakadak bedeinkazioa eragingo du gizartearengan. Nik uste, gizaldi hau andren gizaldia izango dela, gizarte osoaren onerako. Andrazkoak gizadi osoaren oinarrizko maitasun goxoa eta poza direlako.

Gure gizarteari andrazkoen presentzia eraginkorragoa falta zaio. Bi behar nagusi azpimarra daitezke. 1) Haurtzarotik eta

ondo heldu arte, gizakiok andren sentiberatasuna, xamurtasuna behar dugu. Jorratu dugu puntu hau. 2) Gizonezkoek egiten eta eragiten dugun biolentzia orokorra (genero biolentziatik hasita, jakina) ezabatu behar dugu.

Biolentziari helduz, gizakion arteko harremanetako biolentziak genero biolentzia zeharo gainditzen du. Gizonezkook borrokara eta biolentziara hutsagatik jotzen dugulako.

Hasteko, gizonezkoen sexu biolentzia ez dago inoiz, inola, andrazkoei eragoztea. Andra batek -konturatuta ala konturatu gabe- bere nortasunaren arabera gizonezkoa erakartzen jardun arren, eta bortxatua izatean orgasmorik biziena nabaritu arren, gizonezkoak ez du inola aitzakia izpirik bere ekintzak merezi duen epaia arintzeko: andrazkoak argi onetsi gabeko elkarketa orotan, gizonak bortxatu egin du andrazkoa, matxismoa azkeneraino eraman du.

Baina gizonezkoen biolentziak zeharo gainditzen du benetan negargarria den genero biolentzia. Gizonok erasokor penagarriak gara mundu guztian garbi azaltzen denez. Guk gizonok asmatzen ditugun armak eta prestatzen ditugun gudariak eta pizten ditugun gudak gizadi osoaren zamarik handiena izan dira eta dira; eta batez ere andrazko eta haurrentzat.

Ez dut argi ikusten andrazkoak eginbide edo lanbide batzuetarako izendapena gizonezkoei egoztea aurrerapen urratsa izango denik. Baina nik pozik egingo nuke salbuespen bat: andrak izendatu gudarosteetako buru. Adibidez, almirante eta guda-buruak erdiak bat gehiago andrazkoak izatea. Itxaropen handi batez: armen, gudarosteen eta guden garaia betiko bukatuz, elkarrekin denok biolentziarik gabe bizi izaten hasteko; eta arma, militar eta gudetan xahutzen ditugun ahalbideak andren alde erabiliko ditugun esperantzan. Biolentziarik ezak ez digu ekarriko bakarrik genero biolentziaren desagerpena; baita ere heriotzatik eta miseriatik askatzea gaur egun horrenbeste munduko bazter guztietan hondatzen eta erailtzen ditugun andra eta umeentzat.

Arazoa biolentzia da, orokorra. Nik neure burua biolentziaz jardutetik askatuta gorde nahi badut, ez ditut armarik erabiliko, ezta ere edukiko. Hori da andren jokaera. Baina besteak biolentzia erabili ez dezan nik armak edukitzea eta erabiltzea nahi badut, biolentziara joko dut. Hori da gizonekoen jarduera. Gizonezkoak bestea egiten du beti arriskutsu, biolentzien eragile errudun. Elkar egiten dugu arriskutsu. Horrela gizonezko bakoitza gara arriskutsu, ondorioz armagile. Hau da, gizonezkoon militarismoak gerrara garamatza beti eta nonahi, kalterik handienak andrei eta umeei eraginez.

Pentsa daiteke askoz errazago eta hobeto lortuko dutela andrek sexu biolentzia desagerraraztea biolentzia orokorraren kontra lan eginaz, zuzenean genero biolentziaren kontra bakarrik jardunez baino. Eta gizonezkoon biolentziarako joera andrek menperatu eta lan egokieratara bideratu behar digute. Nik uste andrei esker gizarte honetako biolentzia giroa asko leunduko dela eta ehun urte barru gorrotoak oraindik ez baina gudak eta armak zeharo baztertuta egongo direla.

Ospe eta laguntza feministen ekitaldiei. Ongi etorri andren gizaldiari.

Jenaro Garate